

Bixente Serrano Izko

Kontuz, epaile horiek!

A

gintari politikoek Legearen Inperioa, Zuzenbide Estatu edota antzekoak aho betean aldarri dituztenean, orduantxe ene zalantza-alarma guztiak gorritzen zaizkit, estatu polizial batean gaudelakoan. Bai behintzat Auzitegi Nazionalako Zigor Arloko Salak ematen dituen aferei dagokienez. Eta estatu polizialean, dakigunez, ongi jakin ere, sobera daude epaileak, aski eta sobera da polizia, edonor errudun dela erabaki eta zigorra hari ezartzeko. Epaileen esku sartzea, erran nahi baita, epaileen sinadurak, aginduak eta ebazpenak, tramite hutsak dira, poliziaren erabakiei protokolozko, burokrazia zko, itxurazko bidez kotasuna emateko.

Ni neu, epaile izanen banintz, ikusirik nola jokatzan duten nire lankideek, dardarka jarriko nintzateke. Lehenik eta behin, gure lanaren degradazioarengatik, ikusirik nola onartzen duten euren nagusi bihurtzea teoriarik beraien morroi den polizia judiziala: duintasun profesionalaren kontua.

Gero, eta aurrekoaren ondorio zuzena da, eta are degradatzaileagoa ere, sendotu baizik ez dutelako egiten polizien joera bat, epaileen morroi izan beharko luketen horiek, poliziek, jujeak gaitzesteko ohi duten joera, alegia. Zenbat aldiz ez ote ditugu ikusi, Hollywoodeko filma kloniko horietan, polizia orojakile eta ahalguztidunak kexu, delitugileak aurkitzeko beraiek egindako lan efikaza jujeek zapuzten dutela, eskrupulo legalak direla medio!

Sobera daude epaileak segurtasunaren eta efikaziaren izenean irizpide polizialak nagusitzen diren estatuetan. Poliziaren susmoek delitugileak diseinatzan dituztenean, luxuzko kontua da epaile multzo bat izatea, diru-eralketa hutsa da, zertarako gainera, eta delitugileei kaleko ateak irekitzeko, segurtasunaren efikazia pikutara bidaltzeko. Diru-xahuketa hutsa, noiz eta gaur, krisi ekonomiko itzel baten erdian gaudenean, diru publikoaren gastuak murriztu behar omen direnean.

Benetan, epaile izanen banintz, ene lanpostua bera ikusiko nuke kolokan, nire lankide horien utzikeria ikusirik, euren erantzukizuna poliziaren eskuetan uzten



JOSU SANTESTEBAN

dutela ikusirik, ikusirik haien ezgauzak egiaztatu baizik ez duela egiten epaileak sobera daudelako inpresioa, poliziek beraiek zabaldu nahi duten aurreiritzi interesatu horixe.

Auzitegi Nazionalaren Zigor Arloko Sala da. Garzon-eta makila, frogatzen ari dena sistema judizial osoaren luxu xahutzaila, barkaezina beti baina are gehiago krisi ekonomiko garaiotan; Sala hori da begi bistan uzten ari dena epaile guztiak sobera daudela gaur egun aho beteko Zuzenbide Estatu honetan. Frogatzen ari delako poliziaren txostenak nahikoa direla hainbat eta hainbat pertsonari eskubide zibilak eta politikoak kentzeko eta haien gorputzei itzalpean itzala lapurtzeko. Frogatzen ari delako poliziaren txostenak epaileen ebazpenak bezain baliagarriak direla zigorrak ezartzeko, denbora galdu gabe auzi-mauzi eta prozeduretan.

« Epaileek argazkietan azaltzeko baizik ez dute balio, benetako langileei, benetako heroiei, poliziei, lekuri ez uzteko ohorezko ikuskizun mediatikoetan. Gauzak horrela, polizia izanen banintz, argazkien markotik kanpora egotziko nituzke juje alfer horiek »

Epaileek, Garzon kasu, argazkietan azaltzeko baizik ez dute balio, hau da, benetako langileei, benetako heroiei, poliziei, lekuri ez uzteko ohorezko ikuskizun mediatikoetan. Gauzak horrela, benetan diot, polizia ere izanen banintz, argazkien markotik kanpora egotziko nituzke juje alfer horiek, horratx nire hurrengo urratsa epaileek adina ahalmen lortu ondoren.

Euren burua horren arriskuaren aurrean ikusten dutelako egin nahi ote dute greba orain? Estatu polizialean epaileen ezgauza hain garesti zaigunez denoi, erretiro aurreratua masiboki ematen ahal diete! ■